

## Marlaska desvela el empleo de la señal del móvil en seguimientos

Su último auto recoge que dos jóvenes independentistas no pudieron ser seguidos durante tres días sólo porque dejaron los teléfonos en casa

Se sabía que los teléfonos móviles servían para tener localizado a su portador y se sospechaba que las FSE podían hacer uso de esta posibilidad, pero hasta ahora

no había constancia oficial. Ahora el juez Fernando Grande-Marlaska lo ha dejado escrito en su último auto, al afirmar que dos de los últimos detenidos

«no pudieron ser seguidos» durante tres días simplemente «debido a las medidas de seguridad que adoptaron, dejando los teléfonos en casa». >11

### ERREPORTAJEA

## Atxiloketen sufrikarioa, senitartekoen ahotik

Oihane LARRETxea

Astebete pasatxo da Polizia espainolak eta Guardia Zibila, Fernando Grande-Marlaska epailearen aginduz, 34 euskal gazte atzeman zituztenetik; horietatik, 31 preso daude. Atxiloketaren, miaketen, inkomunikazio garairen, jasandako tratua eta abarren gaineko informazio zuzenena gazteek beraiek eman dezakete, baina sufrikario horren berri senideek ere

badute eta haiekin hitz egin du GARAK. «2.00etan heldu ziren, eta atea irekitzean, pistola zuzendu zuten gugana», azaldu du batek poliziak nola etxeratu zitzaizkien oroitzean. Madrilen igarotako orduak ere ez ziren makalak izan, «txakurrak baikinatan tratatu gintuzten». Horrek guztiak ezer onik ere utzi du, ordea: «Han bildutakoon artean lotura sortu zen, eta kanpotik iritsi zaigun babesa gehitu behar zaio horri». >4-5

## Obama anuncia el envío de otros 30.000 soldados a Afganistán

En un esperado discurso en la prestigiosa academia militar de West Point, el presidente de EEUU, Barack Obama, anunció el envío adicional de 30.000 soldados a Afganistán. Su objetivo es que estén en suelo afgano en un plazo de seis meses. El despliegue comenzaría en el este y sur del país, donde los talibán tienen mayor peso. Obama busca también comprometer la ayuda de sus aliados. >2-3

## El Pleno de Leitza exige que se aclare el falso atentado y convoca una marcha

El mismo día en que el juez imputaba al guardia civil herido el pasado domingo en Leitza por «simulación de delito y desórdenes públicos», el Ayuntamiento aprobó, con los votos de la izquierda abertzale y EA, una moción que exige que se aclaren los hechos que rodearon el falso atentado y convoca una manifestación para el día 12 bajo el lema «Maxurrenea herrintzat. Utzi pakean». El Pleno denunció tanto «el montaje» de la Guardia Civil como la posterior manipulación del suceso. >6



## EL RECUERDO ETERNO DE LABOA

Ariane KAMIO

En el primer aniversario de su desaparición, los amigos de Mikel Laboa y la ciudadanía de Donostia llenó el aforo del teatro Victoria Eugenia para recordar al maestro, tributarle un homenaje y celebrar su legado musical por medio de sus canciones. >40-41

Los asistentes al acto del Victoria Eugenia toman asiento, con la imagen de Laboa proyectada en el escenario. Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

k:

Kultura



Iñaki Salvadorren laukotea oholtza gainean, urte luzeetan lagundu zuen maisua gorputzez ez baina arimaz ondoan zuela. Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

Ariane KAMIO | DONOSTIA

Urtebeteren buruan gertatzen diren gauza guztiez oroitzea ezinezko lana da edonorentzat; eguneroko baten laguntzarekin ez bada behintzat, haizearen indar berberarekin eramaten ditu oroimenak galeraranzko bidera oroitzapen guztiak. Urteen igaroak, ordea, badu magia berezirik eta, ezaugarri nagusietakotzat du, bi egun atzerago egin duzuna gogoratu ez arren, 365 egun lehenago gertatutakoak garunean guztiz barneratuta mantentzeko gaitasuna duela. Iraunkor eta ezabaezin geratu zen iazko abenduaren lehenengoan Mikel Laboaren heriotza eta, urtebete beranduago, oroitzapen horrek mugiezin jarraitzen duela egiaztatu genuen atzo Donostiako Victoria Eugenia antzokiak hartu zuen kontzertuan.

“Mikel Laboa 180º” izenburupean, «ohore arraroa» (Iñaki Salvadorrek esan bezala) izan zuten lagun arteko kontzertuan parte hartu zuten musikariek; Salvador bera buru duen hirukoteak eta Chris Kasek (fliskorno jotzailea) hasi zuten Mikel Laboak utzitako ondarea berrininterpretatzeko ibilbidea. “Izarren hautsa”, “Baga Biga Higa” edo “Gure bazterrak” izan ziren estilo jazzistiko eta intimo bati helduta entzun ahal izan ziren lehenengo kantuak. Salvadorrek pianoan bakarka hasi eta ondoren Kasek flikornoarekin lagun-

## Urtebeteren buruan, agur berri bat, zubi berri bat, hamaika oroitzapen zahar

Denbora azkar pasatzen dela jakina da. Konturatu gabe egiten du bere bidea, norbait eraman, ekarri edo atzean uzten duen erreparatu gabe. Denborak ohartarazi zuen atzo Mikel La-

boaren heriotzaren lehenengo urteurrenaz eta, aspaldian egin ez bezala, bidean gelditu eta inguruari begiratu zion. Victoria Eugenia izan zen lagunarteko bilkura horren lekuko.

### ZAHAR ETA BERRI

**Mikel Laboaren betiko lagunak eta musikari gazteak izan ziren oholtza gainera igo zirenak; horien emanaldiez gain, Laboaren ikus-entzunezko bat ere izan zen nabarmentzekoa, besteak beste, «Haika mutil» nola kantatzen zuten entzunaz batera.**

duta, esku artean hartu zuten “Ne me quite pas”en melodia leunek sortu zuten gaeko unerik esanguratsuenetakoa. Isiltasunarekin dantzan, hauskor eta goxo aritu ziren nor baino nor.

### Zubia, elkartzeko bidea

Donostiako Udalak urtebete lehenago hala erabakita, hil osteko oroigarri gisa, Odon Elorza alkateak hiriko Urrezko Domina eskainia zion Marisol Bastida emazteari. «Gure hitzak esan, berriz esan, ez daitezela ahaztu, ez daitezela gal, elur gainean

txori hanka arinek utzitako arrasto zail ederra bezalaxe», ekarri zuen gogora Elorzak berak. Kasik malko artean, eta arazo bat edo beste medio (denbora behar izan zuen alkateak domina askatu eta Bastidaren lepoan jartzeko), hartu zuen oroigarria Laboa zenaren emazteak. «Mikeli bere bizitzan zehar lagundu dioten guztiei eskainiko nieke. Zentzu batean sari hau denonda, baina denon artean banatuko bagenu, apurretan geratuko zen, beraz, geuk jaso eta gordeko dugu, baina Mikelek askotan

esaten zuen bezala, ‘guzti horiei, mila esker’», agertu zuen. Domina emateaz gain, Donostiako Udalak Mikel Laboa izenarekin bataiatuko du Cristina Enea parkea eta Loiolako Erriberako auzoa batzen dituen zubia. «Nire nahia zein den esango dut –jarraitu zuen emazteak–; nahiko nuke Mikelek berak zubi izaten jarraitzea, bere obra edo lanaren bitartez; nahiko nuke bere lana banalizatua ez izatea; nahiko nuke gogoratzea nola urtetan zehar behin eta berriro Mikelek kantatu duen bizitzaren alde eta



Marisol Bastida, Urrezko Domina jaso ostean. Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

## GOXO ETA LEUN

**Iñaki Salvadorrek eta Chris Kase fliskorno jotzaileak nor baino nor jo zuten «Ne me quite pas» kantua eraman zuten Victoria Eugeniara ikuskizuneko unerik berezietako bat.**

## DENONA

**Marisol Bastida: «Mikeli bere bizitzan zehar lagundu dioten guztiei eskainiko nieke. Zentzu batean sari hau denona da, baina denon artean banatuko bagenu, apurretan geratuko zen, beraz, guk gordeko dugu. Baina Mikelek askotan esaten zuen bezala, 'guzti horiei, mila esker'».**

libertatearen alde, bai indibidual eta bai kolektiboen alde. Mikel zubi bezala maiz ikusi dudalako».

Eta zubia bizirik zela eraiki zuela argi geratu zen berriz ere, eraikuntza horren erakusle izan baitziren Euskal Herriko musikari gazteak, bakoitzak bere estiloan egindako kantuen berrinterpretazioen bitartez. Makalak eta DZk, Lain bikote hasi berriak, Xabi San Sebastianek, Ken Zazpik edo Gosek frogatu zuten oraindik zer entzun, zer esan eta zer kantatu badagoela Laboak utzitako ondarean murgilduz gero. «Haika mutil», «Haurtxo txikia», «Martxa baten lehen notak», «Ihesa zilegi balitz», «Pasaiko herritik», «Dialektikaren laudorio», «Liluraren kontra» eta «Baba Biga Higa» izan ziren belaunaldi berrien lekukoa hartu dutenen ahotan entzun ahal izan ziren abestiak.

Urtebeteren buruan, lagun batek segapatora bidalitako mezuak esnatu ninduen atzo: «Gogoratzen orain urtebete gertatutakoa? Albiste txarrak zituen mezu batekin esnatu zuen orduan ere abenduaren lehenengoak». Oroimenak su-etena eskaini dit oraingoan, eta 365 egun atzerago gertatutakoa garunean gordetzeko baimena eman dit. Uste dut betiko izango dela, zubiak eraikitzen direnean bezala. Garai batekoak eta beste-koak elkartuta jarraitzeko balio dezala behintzat.

# «Los libros y discos censurados en todo el mundo y todas las épocas», a exposición en Bilbo

El IV. Festival Contra la Censura de Bilbo expone, tras los conciertos de Gilberto Gil, Aziza Brahim y Rachid Taha, libros y discos censurados en distintas épocas y lugares en el Mercado del Ensanche.

GARA | BILBO

FAHED HALABI

El Festival Contra la Censura, que se viene desarrollando en Bilbo desde el pasado mes de noviembre presenta, tras sus conciertos musicales, interesantes exposiciones como la de «Libros y discos censurados» que se inauguró ayer.

La muestra comprende tres apartados. La primera está dedicada a los «Discos internacionales censurados», trabajos principalmente de pop y de rock que debido a sus portadas, escandalosas para algunos, o contenidos, subversivos para los mismos, fueron censurados. La siguiente se denomina «Cantar y callar. Censura y represión del canto popular», y está enfocada a trabajos de artistas del Estado español, principalmente cantautores de folk, que sufrieron los rigores de la censura franquista. Por último, el apartado dedicado a la muestra de «Libros prohibidos y censurados en todo el mundo y en todas las épocas» cierra la muestra.

**Tras su paso por Gernika y los Centros Municipales de San Ignacio, Begoña y San Francisco en Bilbo, la exposición que recoge las obras del artista druso Fahed Halabi culmina este mes en Barrainkua.**

La exposición se podrá visitar hasta el próximo 14 de diciembre en el Mercado del Ensanche de Bilbo, en horario de 9.00 h. a 19.00 h.

### El gran dictador

Además, antes de que el festival toque a su fin, se podrá visitar también la exposición «Españoleando. Chumy Chumetz en el Diario Madrid», que recoge la obra del humorista gráfico, del que hablará hoy el periodista Miguel Angel Aguilar, en una conferencia que tendrá lugar en el Aula de Cultura de la BBK —donde está colgada la exposición—, a las 19.30 h.

Por su parte, tras visualizar en días anteriores «Los demonios del Edén» y «Hollywood contra Franco», la muestra cinematográfica finaliza hoy con la proyección del clásico «El gran dictador» de Charles Chaplin en la biblioteca de Bidebarrieta, a las 21.00 h. Y para finalizar el festival, la obra del artista Fahed Halabi, censurado en Israel, se colgará en Barrainkua del 7 al 31 de diciembre.

**BOS**  
Bilbao Orkestra Sinfonikoa  
Gunter Neuhold

**5** abendua 3-4

P. Sorozabal: Victoriana  
B. Marcello: Concierto para oboe, cuerda y continuo  
I. Stravinsky: Pucinnella, ballet

Nicolas Carpentier, oboea  
Marifé Nogales, mezzosopranoa  
Andeka Gorrotxategi, tenorra  
Fernando Latorre, baxua  
José Ramón Encinar, zuzendaria

atzera begirada bat

f www.bilbaorquestra.com

ordutegia	Informazioa	prezioak
20:00 T. 94 40 35 205	lekua Palacio Euskalduna Jauregia	27,50 € 13,00 € gazteak (-27) 8,10 € 4,40 €

**Babeslea**  
BBKren Gorría baldin baduzu,  
**BBK26**  
sarrerak 2,20€  
eta abonatuak 33,00€

## GUTUNAK

**Euskarabideko zuzendari-kudeatzaileari**

OSKAR ZAPATA, GARBIÑE PETRIATI ETA MIKEL BULDAIN

Topagunea, Euskarazko hedabideak eta NafarPress-en izenean, hurrenez hurren

Azaroaren 24an, Euskarabideko zuzendari-kudeatzaile Xabier Azanzak ondoko adierazpena egin zuen Xorroxin Irratian, euskarazko hedabideetarako laguntzen desblokeoa dela-eta: «Telefonoz Topaguneko zuzendariari deitu diot orain gutxi berri txarrak emateko. Atzo arte deialdia aterako dela esan diegu bai hedabideetako ordezkariari, bai medioetan galdera egin digutenei. Horretarako behar den Gobernu Akordioa sinatuko zela esan du. Eta gaur jakin dut atzoko Gobernu saioan ez zutela onartu diru laguntza ateratzeko behar zen akordioa. Zergatik ez zen onartu oraindik ez dakidala aitortu behar dut. Kontua da epea hain estu ibilita oso beltza ikusten dudala. Akaso hurrengo bileran...ba ez dakit».

Hitz horiei erantzunez, duela urtebetetik hona Euskarabidearekin eta Azanza jaunarekin gaia lantzen gabiltzan euskarazko hedabideen ordezkariok honako hau adierazi nahi dugu gure aldetik:

1. Urte osoa jiraka eta bueltaka ibili ostean, ezin dugu sinetsi uztailan agindutako 240.000 euroak ez dituztela banatuko.

2. Kasu eta une honetan Euskarabideko zuzendari-kudeatzaileari dagokio Gobernuaren konbentzitzeko edo presionatzeko ardura.

3. Diru laguntza deialdia ateratzeko erabakia oraingoz Nafarroako Gobernuaren eskuetan dagoen heinean, eta egoeraren larritasuna kontuan hartuz, Euskarabideko zuzendari-kudeatzaileari eskatzen diegu, Gobernuaren konbentzitzeko edo presionatzeko eduki ditzakeen bide guztiak erabili ditzala, bere kargua mahai gainean jartzera ino beharrezkoa izanez gero.

Horrez gain, eta Azanza jaunak egoera erogarri hau desblokeatzen asmatuko duelakoan,

agerian utzi nahi dugu beste behin ere gure prestutasuna 2010. urtean euskarazko hedabideen egoera egonkortzeko elkarlanean segitzeko.

**Gure senideak dituzte preso; ez gure duintasuna!**

MIREN ARRATIBEL GARMENDIA

Donostia

Puerto I, DNia, kontrol bat, bestea... Ezer ez. Ez naute «katxetuko»? Atzoko bisetakoek baietz esan didate, bada. Ah, bai, hemen dator... Galdetzen dit ba ote dudak «katxeoen» berri. Nik ezetz (ez diot nik egingo lan zikina!). Ba omen du agindu bat. Zer agindu? «Ez dakit, ez dut ikusi», dio. Ondo: ez berak eta ez nik ikusi ez dugunez, ea norbaitek azalpenik ematen digun... Ez, ez da inor etorriko; atekoa izendatu berri omen du nagusiak hemengo buru («*soy el ultimo mono*» dio berak, aldiz!). El-karrizketa surrealista, espetxeetan ohi diren horieta-

koa. Ondorioa: ba omen Madril-dik nire senarraren edo nire kontra propio emandako agindu bat, inork ikusi gabea, eta, oi halabehararren halabeharra, ehunetik gora senideri ezarritako neurri bera niri ezartzea eskatzen duena (negargarria ez balitz, barre egingo genuke!). Katxeatu egin behar nautela; hori bai, neurria legez kanpokoa izan arren, emakume batek katxetuko nau, legea betez. Ez dezagun denbora gehiago gal. Erreklamazio orria (sinbolikoa; baina, badaezpada... baliteke Euskal Herrian oraindik norbaitek paper beharra izatea, etengabe jasaten ditugun eskubide urraketan «froga»!). Kopia. Orain, itzul iezadazu DNia. «Nola? Bisetik irten arte hemen gelditzen da karneta, badakizu». Horixe badakidala; ez naiz sartuko, ordea. «Nola? Ez zara sartuko?». Harrituta, nonbait. Izan ere, bazterretan duintasuna banatu zuten egunean, urruntxo zebiltzan hauek!

Banoa. Etsita? Triste, ez dut ukatuko. Baina, badugu samine-

tik zer ikasi. Atekoak agindu bat zuen, ezin bete izan duena ez nirekin ez beste hainbatekin (Curtis, Jaen, Almeria, Herrera, Ocaña, Huelva, Brieva, Teruel, Daroca, Aranjuez, Valentzia, Alacant, Dueñas, Soto, Granada...). Oztopoak oztopo, geure buruaren jabe garelako, geuk erabakiko dugulako, gure helburuen arabera, zer, noiz eta nola egin. Noiz arte? Zertarako? Mereziko ote?... Seguru asko, zalantza berak izango zituzten gu errepre-saliatu politikoen senide bihurtu aurretik egoera honetan egondako beste askok. Baita gure senideek ere, bizitzan hainbat erabaki zail hartzea egokitu zaienean eta etengabeko duintasun erakutsietan.

Orain, zer? Etxera. Salaketa jarri, prentsaurrekoak egin, interpelazioak landu, enkarteladak antolatatu, gutunak idatzi, eztabaidetan parte hartu... Bihur dezagun gure samin guztia energia, eskubide urraketaren kontrako harresi sendoa eraikitze-ko energia. Horrela bai mereziko duela!

## KOLABORAZIOAK

Ayer, 1 de diciembre, se cumplió el primer aniversario de cuando el entrañable cantautor euskaldun Mikel Laboa (Donostia 1934-2008) abandonó definitivamente la tierra, el país, nuestra patria Euskal Herria y se encontró allá, en lo alto, con sus txoriak. Aquella noticia, recibida con dolor como imposible por la eternidad espiritual que poseen los grandes artistas, dejó un silencio, un vacío no sólo creativo y comunicativo, sino que supuso también la pérdida de una excepcional personalidad, humanista y amable, discreta y generosa, genial y admirable.

Su aportación a la cultura vasca ha sido, y seguirá siendo, trascendental en nuestra historia contemporánea, un período excepcional y fundamental en la creación artística: Ez Dok Amairu, el euskara batua, los grupos artísticos Gaur, Emen, Orain, Danok, la estatuaría del santuario de Arantzazu, etcétera. Supuso la incorporación de una forma de expresión musical oral de absoluta vanguardia partiendo de las raíces peculiares de un pueblo, sus creencias, tradiciones y una lengua singular.

Laboa alcanzó, desde una humildad personal y austeridad escénica, una grandiosidad absoluta creando en sus actuaciones una atmósfera poética sencilla a la vez que profunda entre la forma y el fondo. Una voz entrañable con unos registros sorprendentes, compuestos de dulzura, armonía, sentimiento y

## Mikel Laboa «in memoriam»

Iñaki Uriarte  
Arquitecto

Laboa alcanzó, desde una humildad personal y austeridad escénica, una grandiosidad absoluta creando en sus actuaciones una atmósfera poética sencilla a la vez que profunda entre la forma y el fondo. Una voz entrañable con unos registros sorprendentes, compuestos de dulzura, armonía, sentimiento y capaz de desgarrar vocales que creaban tonalidades épicas

capaz de desgarrar vocales que creaban tonalidades épicas. Repletas de una conmovedora semántica, transmitiendo unos contenidos penetrantes de ancestralidad de múltiples memorias, en ocasiones casi olvidadas, alusivas a la etnografía, la naturaleza, la vida, el sufrimiento, el euskara y el país, impregnando la sensibilidad de los asistentes. Componía un tiempo emocional diferido, una reverberación.

Su fraseo sumamente expresivo, apreciado en directo con su presencia, poseía además de profundidad una gama de sensaciones contagiosamente enternecedoras que suscitaban en ocasiones temáticamente un llanto espiritual y cuántas veces real. Actualmente y en el futuro, su abundante discografía, enriquecida con las artísticas portadas de su gran amigo, el extraordinario pintor Jose Luis Zumeta, nos permitirá la recreación de momentos inolvidables.

Quienes además tuvimos la ocasión de conocerle personalmente desde hace muchos años, en su época de especialidad médica en Barcelona, apreciamos su estructura humanista arraigada en los valores más tradicionales de un pueblo que gene-

raron su faceta inspirativa. Solitario con todas las aficciones y problemas de Euskal Herria es preciso recordar, por ejemplo, la asistencia junto con otros destacados artistas a la Biennale di Venecia en 1976 bajo el lema «Amnistía Denontzat». Mikel, como también casi todo el arte vasco comprometido con su país, ha sido miserablemente ignorado en España.

Quizá uno de los momentos más sublimes y merecidos de su vida como artista, por la dimensión estética, la singularidad orquestal, así como por la multitudinaria y afectiva acogida popular, fue el concierto de agosto de 1999 en el Victoria Eugenia Antzokia de Donostia junto con Donostiako Orfeoia y Euskal Herriko Gazte Orkestra, en tres temas que representan epopeyas musicales: «Gernika (Lekeitio 4)», «Txoria txori» y «Baga-bigahiga (Lekeitio 2)». Su declamación, respondida y respaldada por el magnífico arropo colectivo vocal e instrumental, crea para-jes musicales incommensurables, incluso en sintonía con la dialéctica estética vasca entre el vacío, en este caso su canto, y el lleno, el coro y la orquesta. La obra de Mikel Laboa, si fuésemos un país elementalmente culto, debería ser analizada en su totalidad y tener, como genuino e irreplicable por muy diversos valores, la consideración y calificación de monumento sonoro perteneciente al Patrimonio Cultural Inmaterial Vasco.

El pasado 8 de agosto en la Donostiako Musika Hamabostaldia

quienes acudimos a su homenaje «Laboaren Munduak», con la participación de sus colaboradores más habituales y grandes creadores musicales Iñaki Salvador y Josetxo Silguero, pudimos de nuevo apreciar con una inmensa carga emocional el gran reconocimiento y afecto popular y la enorme trascendencia de su legado musical, que quedará para siempre.

En este contexto cultural resulta absolutamente decepcionante que llegado ya el primer aniversario, fuera de Gipuzkoa, no se haya programado ningún acto en su memoria. Padecemos toda esta extirpe de políticos asalariados de la cultura, desde los responsables del área en el Gobierno-rapiña vascongado españolista, hasta una diputada de Cultura en Bizkaia y una concejala de Cultura en Bilbo cuyas aficiones más conocidas en esta materia —con la que siempre desde hace décadas especulan demagógicamente— son los estrenos de la ópera y las cenas del Guggenheim, utilizadas para poder posar y mostrar vestimenta. Gente conocida por su absoluta indiferencia, insensibilidad e incapacidad, algo verdaderamente despreciable. Más si comparativamente vemos en ocasiones qué tipo de personajes y espectáculos se contratan para el Arriaga y Euskalduna.

Volviendo a Laboa, su figura y obra permanecerán siempre como un inmortal patrimonio sentimental de Euskal Herria. Por todo y por tanto, *mila esker Mikell!*